

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Asparreneko Udalaren menpekoen kategoriako hiru plaza, txanda irekian, oposizio-lehiaketa bidez, jabetzan betetzeko deialdiaren oinarriak aldatzea eta epea luzatzea

Asparreneko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, honako erabaki hauek hartu zituen:

Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko Erabakiaren bidez onetsi zen Asparreneko Udalaren 2019rako enplegu publikoaren eskaintza. Horretan jasotzen dira dagozkion hautaketa prozesuen bidez hornitu beharko diren plazak. Enplegu publikoaren eskaintza hori 2019ko abenduaren 18an argitaratu zen ALHAOn (145. zk.a).

Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko maiatzaren 14ko Erabakiaren bidez (ALHAO, 62. zk., 2020ko ekainaren 3koa), plaza bakoitzaren hautaketa prozesuaren oinarri orokorrak eta espezifikokoak onartu ziren. Oinarri horietan, plaza bakoitzaren ezaugarri bereziak zehazten dira, eta oposizio-lehiaketaren sistemaren bidezko hautaketa-probetarako deialdia egin zen.

Eusko Jaurlaritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako zuzendariaren idazki baten bidez, oinarriak indarreko legeriara egokitzeari buruzko informazioa eskatzen da.

Aipatutako oinarrien edukia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legea, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legea eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batgina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretura, haren mendeko kategoriako lanpostuen zerrendara eta udal honetako menpekoen kategoriako lanpostuen zerrendara (ALHAO, 137. zk.a, 2019ko azaroaren 27a).

Estatuko administrazio orokorraren zerbitzupeko langileen sarrerari buruzko erregelamendu orokorra onesten duen martxoaren 10eko 264/1995 Errege Dekretuaren 15.5 artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90. eta 91. artikulua aztertu dira.

Kontuan hartuta Tokiko Gobernu Batzar hau dela oinarriak onesteko organo eskuduna, alkatetaren 2019ko uztailaren 15eko Ebazpenaren arabera (Alkatetzaren eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzan ematekoa; 2019ko uztailaren 24ko ALHAO, 85. zk.), eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu batgina onesten den urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 36. eta 37.1 artikuluetan xedatutakoa bete ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabakitzen du:

Lehenengoa. Onestea menpekoen kategoriako hiru plaza, txanda irekian, oposizio-lehiaketa bidez, jabetzan betetzeko deialdiaren oinarriak aldatzea.

Oinarrien testu osoa, aldaketaren ondoren, akta honen I. eranskinean transkribatzen da osorik.

Bigarrena. Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratuz argitaratzea oinarrien aldaketa, eta hamabost egun balioduneko beste epe bat irekitzea eskabideak aurkezteko, iragarkia Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, hasieran ezarritako epearen barruan aurkeztutako eskabideak errespetatuz.

Hirugarrena. Alkateari baimena ematea hura garatzeko behar diren egintza guztiak sinatzeko.

Laugarrena. Erabaki hau Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari jakinaraztea, eta adostutako aldaketen eta zure idazkian planteatutako gaien berri ematea.

Bosgarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa jarri ahal izango da, argitaratzen den egunaren hurrengotik hasi eta bi hilabeteko epean, Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, edo nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, Asparreneko alkateari; hori guztia, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46.1 artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Araia, 2020ko uztailaren 3a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ

Oposizio-lehiaketa bidez menpekoen kategoriako hiru plaza jabetzan betetzeko deialdiaren oinarri arautzaileak.

Lehenengoa. Deialdiaren xedea

1. Oinarri hauen xedea da menpekoen kategoriako hiru funtzionario plaza lehiaketa-oposizio bidez, txanda librean, jabetzan betetzeko hautaprobeen deialdia egitea, Asparreneko Udalaren 2019ko enplegu publikoaren eskaintzaren arabera (Tokiko Gobernu Batzordearen 2019ko abenduaren 9ko Erabakiaren bidez onetsi zen eta 2019ko abenduaren 18ko ALHAOn argitaratu zen, 145. zenbakian). Plazak oinarri hauen eranskinetan zehazten dira, eta ondorio guztietarako gehitzen dira.

2. Kanporatze ariketak gainditu arren deitutako plaza kopurua gainditzen duten izangaien zerrendak lan poltsa bat edo aldi baterako kontratazio zerrenda bat osatuko du, Asparreneko Udaleko menpekoen kategoriako lanpostuetan aldi baterako beharrak betetzeko erabiliko dena, beti ere lanpostu berdinetan edo antzekoetan langile ez iraunkorren beharrak betetzeko lan poltsak arautzen dituen indarreko udal arautegiari, indarrean dagoen lan poltsen arautegiari eta 16. oinarriari jarraituz.

Bigarrena. Eginkizunak

Lanpostu bakoitzaren funtzioak eta ezaugarriak l. eranskinean zehazten dira. Eranskin hori ondorio guztietarako sartzen da oinarri hauetan.

Hirugarrena. Izangaien betekizunak

1. Hautaketa prozesuan onartua izateko, honako betekizun hauek bete beharko dira:

a) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea, edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukan estaturen bateko nazionalitatea edukitzea. Halaber, Europako Batasuneko estatuetak herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez berezita ez badaude, baita herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta legez berezita ez badaude. Azken horiek 21 urte baino gutxiago izan beharko dituzte, edo bestela gurasoen kontura bizi.

b) Hamasei (16) urte beteta edukitzea eta, hala badagokio, nahitaezko erretiroa hartzeko gehieneko adina gainditu gabe izatea.

c) Lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez egitea galarazten duen gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez edukitzea. Hala ere, apirilaren 7ko 13/1982 Legea, minus-baliatuak gizarteratzeari buruzkoa, aplikatu ahalko da.

d) Diziplina espedientearen bidez, inongo administrazio publikotik baztertuta ez egotea, eta eginkizun publikoak betetzeko desgaiturik ez egotea. Atzerritarra izanez gero, norbere estatuan funtzio publikora sartzeari galarazten duen diziplina zigorrak edo kondena penalik ez izatea.

e) Eskola ziurtagiria edo beste agiri baliokideren bat edukitzea, edo hura edukitzeko baldintzak betetzea eskabidea aurkezteko epea amaitzen den datan.

f) B kategoriako gidabaimena edukitzea.

g) Herri Administrazioetako Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legeak ezarritakoaren arabera, ezintasun eta bateraezintasun kasuren batean ez egotea; dena dela, egun kargu publiko edo jarduera pribatu bateraezinen bat dutenek bata edo bestea aukeratu ahal izango dute, arau orokor horrek horretarako eskubidea ematen baitie.

h) 2. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea izatea, edo horretarako egiten diren hizkuntza egiaztapeneko proben bidez egiaztatzeko moduan egotea.

2. Aurreko betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean eduki beharko dira beteta, hizkuntza eskakizuna izan ezik, horretarako proba bat eginez egiaztatu ahalko baita. Halaber, horiek guztiak eduki beharko dira, hautaketa prozeduran zehar, izendapena egiten den arte, oinarri honetako g) puntuan ezarritakoa galarazi gabe.

Laugarrena. Eskaren aurkezpena

1. Forma: Eskabideak eredu ofizial eta normalizatuan egingo dira. Eredu hori Asparreneko udaletxean har daiteke (herriko enparantza, 1, 01250 Araia), bai eta webgune honetan ere: <http://www.asparrena.eus>. Eredu hori oinarri hauen III. eranskinean jasota dago.

Onartuak izateko, eta, hala badagokio, hautaprobetan parte hartzeko, hautagaiek beren eskabidean adieraziko dute eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen dituztela, eskabideak aurkezteko epea iraungi baino lehen. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) NANaren fotokopia konpultsatua edo, onarpen-baldintzak betetzen dituzten atzerritarren kasuan, nortasuna egiaztatzen duen agiriarena.

b) B kategoriako gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.

c) Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia konpultsatua.

d) Eskatzen den hizkuntza maila baduten hautagaiek ez dute euskara probarik egin behar izango; inguruabar hori eskabidean jakinarazi beharko dute eta frogagiriaren fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute.

Eskaran erantzukizunpeko adierazpena jasotzen da. Hartan, lehiaketa fasean baloratuko diren merezimenduak zehatz-mehatz zerrendatu beharko dira, gutxienez lekua, data, plaza eta lanaldia zehaztuta. Eskabidean zehazten ez direnak ez dira balioetsiko.

Alegatutako merezimenduak agiri bidez egiaztatuko dira, hamargarren oinarrian zehaztutako moduan eta epean.

2. Eskabideak aurkezteko lekua: behar bezala beteta aurkeztuko dira eskabideak, Asparreneko Udaleko Erregistro Orokorrean. Gainera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 2ko 39/1992 Legeak 16.4 artikuluan adierazitako moduan ere aurkeztu ahal izan dira.

Asparreneko Udaleko Alkatetzara zuzenduko dira, data eta zigilu egokia jarrita, eskabideak aurkezteko epearen barruan. Antzeman daitezkeen egitatezko okerrak edozein unetan zuzendu ahalko dira, ofizioz edo interesdunak eskatuta.

3. Eskabideak aurkezteko epea: hamabost (15) egun balioduneko epean aurkeztu beharko dira, deialdiaren laburpena «Estatuko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Eskabideak aurkezteko azken eguna baliogabekoa bada, dagokion hurrengo egun baliodunean aurkeztu ahalko dira.

4. Eskabideetako akatsak zuzentzea: APELren 68.1 artikulua arabera, eskabideetan akatsik egonez gero, interesdunari galdatu egingo zaio, hamar eguneko epean okerra zuzen dezan. Halakorik egin ezean eskabideari uko egin diola ulertuko dela jakinaraziko zaio.

Bosgarrena. Eskabideak onartzea

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Asparreneko Udaleko alkateak ebazpena onartuko du eta ALHAOn, udaletxeko iragarki taulan eta <http://www.asparrena.eus>, webgunean argitaratuko du, onartu diren eta baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrenda eta guzti. Prozesu honekin lotuta ematen diren eta ALHAOn argitaratzen diren ebazpen guztiak, halaber, udaletxeko iragarki taulan eta webgunean sartuko dira: <http://www.asparrena.eus>.

Gainera, ebazpen horretan adieraziko dira lehenengo ariketa hasteko tokia, eguna eta ordua, eta kalifikazio epaimahaiko kide titularrak eta ordezekoak izendatuko dira.

Aipatutako zerrendan baztertuta agertzen diren hautagaiek, APELen 68.1. artikuluan ezarritakoaren arabera, 10 egun balioduneko epea edukiko dute, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, baztertuak izateko akats edo hutsuneak zuzentzeko, bai eta egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkezteko ere.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin-behineko zerrenda behin betiko zerrenda bihurtuko da. Erreklamazioak badaude, baietsi edo ezetsi egingo dira, eta, beharrezkoa bada, behin betiko zerrenda onartzen duen ebazpen berri bat emango da, aurrekoaren modu berean jendaurrean erakutsiko dena.

Ebazpen honen aurka berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio Asparreneko alkateari, hila-beteko epean, behin betiko zerrenda ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Behin-behineko zerrendan baztertuak izan diren eta epe barruan zerrenda horien aurkako erreklamazioa aurkeztu duten pertsonak probak egin ahal izango dituzte, kautelaz, baldin eta planteatutako ebazpena ez bada data horretarako ebatzi. Halaber, behin betiko zerrendan baztertuak izan diren pertsonak probak egin ahal izango dituzte, kautelaz, baldin eta baztertuak izatearen aurka errekurtsu egokia aurkeztu dutela egiaztatzen badute eta errekurtsua data horretarako ebatzi ez bada.

Seigarrena. Datuen babesa

a) Oinari hauetan azaltzen den ariketa edo probaren batean parte hartzean, hautagaiak baimena ematen du bere eskabidean jasotako datu pertsonalak eta izen-abizena, NANA eta prestakuntza maila mintzagai dutenak tratatu daitezzen, eta aldizkari ofizialetan, iragarki tauletan, webgunean, eta, orokorrean, hautaketa prozesuaren behin-behineko edo behin betiko emaitzen berri emateko erabiltzen den beste edozein bitartekotan argitaratu daitezzen, bai eta IVAPEk edo organo eskudunak egiaztatu dezaten ea euskararen edo beste edozein hizkuntzaren ezagutza maila egokia den eta, orokorrean, epaimahaiak egiazta dezan hautaketa prozesuko probak era egokian prestatu eta betearazteko beharrezko datuak egokiak diren.

b) Oinarri hauetan azaltzen den hautaketa prozesuan bete egin behar da publizitatearen printzipioa; horrenbestez, ez da onartuko eskabiderik, baldin eta hautagaiak ez badu datuak aurreko paragrafoan adierazitako edukiarekin eta helburuetarako erabiltzeko baimenik ematen.

c). Datu pertsonalen tratamendua honako hauetan ezarritakoaren arabera egingo da: Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua (Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorra onesten duen 95/46/EE Zuzentaraua indargabetu du).

Zazpigarrena. Epaimahaiaren osaera, eraketa eta jarduera

1. Deitutako hautaketa prozesua kalifikatu behar duen epaimahaia eratzean, bete egingo da uztailaren 6ko 3/1989 Legeak, Euskal Funtzio Publikoarenak, 31. artikuluan eta urriaren 30eko 5/2015 Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duenak, 60. artikuluan adierazitakoa.

Epaimahai burua, idazkaria eta lau kide egongo dira, bai eta ordezkoko kopuru bera ere. Kideok izendatzeko, inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioak bete beharko dira, eta emakumeen eta gizonen kopurua parekidea izango da.

Era berean, espezialitatearen printzipioa betetzen dela zainduko da. Gutxienez epaimahaiko kideen erdiek lanposturako eskatutako ezagutza arloko titulazioa izango dute, eta denek ikasketa maila berdina edo handiagoa eduki beharko dute. Epaimahaiko kide diren titular eta ordezkoak Tokiko Gobernu Batzarrak izendatuko ditu, eta izendapena ALHAOn argitaratuko da. Kideetako bat IVAPek proposatuta izendatuko da. Hautaketa edo izendapen politikoko langileak, bitarteko funtzionarioak, aldi baterako langile lan kontratadunak eta aldi baterako langileak ezin izango dira hautaketa organoetako kide izan.

Hautaketa organoetako kideak nor bere izenean arituko dira beti, hau da, organo horietan ezingo da jardun inoren ordezkartzan edo kontura. Nolanahi ere, epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eduki ahalko du, egokitzat jotzen dituen alderdietan.

Epaimahaia erabat burujabe izango da bere egitekoetan, prozeduraren objektibotasunaren erantzukizuna izango du, eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatuko du.

2. Abstentzioa: epaimahaiko kide diren pertsonak ezingo dute esku hartu; urriaren 1eko 40/2015 Legeak, Sektore Publikoko Araubide Juridikoarenak (aurrerantzean, SPAJL), 23. artikuluan aurreikusitako egoeraren bat badago tartean, alkatetza jakinaren gainean jarri beharko da.

3. Errekusatzea: SPAJLren 24. artikuluen arabera, hautagaiak epaimahaia osatzen duten pertsonak errekusatu ahal izango dituzte, aurreko artikuluan aurreikusitako kausaren bat tartean denean.

4. Eraketa: epaimahaia ezingo da eratu, eta hark ezingo du jardun, baldin eta burutzarako eta idazkaritzarako izendatutako pertsonak edo horien ordezkoak eta gutxienez kideen (titular nahiz ordezko) erdia bertaratu ez badira. Idazkaritzarako izendatutako pertsona ez da kontuan hartuko. Norbait bertaratu ezin bada edo gaixorik badago, eta, orokorrean, justifikatutako edozein arrazoi gertatzen bada, kalifikazio epaimahaiko titularren ordezkoak bertaratuko dira. Burutzarako izendatutako pertsonaren postua hutsik badago, hura falta bada, gaixorik badago edo legezko beste kausaren bat bada tartean, bere ordezkoa bertaratuko da, eta, hura ere ez badago, epaimahaiaren kideen artetik hierarkia, antzinasun eta adin altuena duena, ordena horretan. Idazkaritzarako izendatutako pertsona behin-behinean ez badago, postua hutsik dagoelako, hura ez dagoelako edo gaixorik dagoelako, bere ordezkoak beteko du lekua, edo, halakorik ezean, kalifikazio epaimahaiak erabakitzen duenak.

5. Jarduera: epaimahaia osatzen duten pertsona guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea izango dute; salbuespen bakarra idazkaritzarako izendatutako pertsona izango da, ezingo baitu botorik eman. Epaimahaiaren erabakiak bertaratu diren kideen gehiengo botoarekin hartuko dira, eta, berdinketarik badago, burutzan dagoenaren botoak ebatziko du. Jakinarazpenak egin eta gainerako gorabeherak ebazteko, epaimahaiak Asparreneko Udalean edukiko

du egoitza (herriko enparantza 1 zk., 01250 Asparrena). Epaimahaiak agertzen diren zalantzak argitzeko eta deialdiaren garapen egokirako beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena dauka, oinarri hauek aurreikusten ez duten guztirako. Epaimahaian parte hartuz gero, otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan, zerbitzuen ondoriozko kalteordainei buruzkoan, legez aurreikusitako kalte ordainak jaso ahal izango dira.

Zortzigarrena. Hautaketa prozedura

1. Hautagaiak aukeratzeko prozedura lehiaketa-oposizioa izango da, txanda librean.
2. Oposizio fasean bederatzigarren oinarrian deskribatzen diren ariketak egingo dira.

Epaimahaiak proba bakoitzean baloratuko du zein den metodorik egokiena hautagaien anonimotasuna eta konfidentziasuna bermatzeko, eta beharrezko neurriak hartuko ditu, metodo hori aplikatu dadin bai probak egitean, bai zuzentzean.

Kalifikazio epaimahaiak oposizio fasean probak egin ahalko ditu, oinarriotan aurreikusi ez den beste ordena batean, bai eta egun berean hainbat proba egin ere. Nolanahi ere, proba bakoitza ebaluatuko du, aurrekoa gainditu duten pertsonen kasuan. Proba bakoitzaren emaitzak iragarki taulan eta webgunean argitaratu ondoren, 3 egun balioduneko epea egongo da azterketa berrikusteko, eta beste 3 egun balioduneko epea erreklamazioak egiteko, azterketa berrikusteko epea amaitu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Epaimahaiak une oro eskatu ahalko die hautagaiei behar bezala identifika dezatela beren burua. Horretarako, oposizioko ariketa guztietan eduki beharko dute nortasun agiri nazionala, pasaporte edo gidabaimena eskura. Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak hautagaietarako bati deialdian eskatzen diren baldintzaren bat falta zaiola jakin badu, aurretiaz interesdunari entzunaldia eginda, baztertuta geratuko da, eta hautaketa prozesua deitu duen agintaritzari jakinaraziko zaio.

3. Lehiaketa fasea hautagaiek alegatu eta egiaztatu dituzten merezimenduak aztertu eta baloratzea izango da, eta haietako bakoitzari dagozkion puntuak esleituko zaizkio, deialdian zehaztutako baremoaren arabera. Eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte eskuratutako merezimenduak bakarrik kontatuko dira.

4. Merezimenduen lehiaketa fasean ez da inor baztertuko, eta hautagaiek lortzen dituzten puntuak ez dira kontuan hartuko oposizio faseko probak gainditzeko.

Bederatzigarrena. Oposizio aldia

1. Oposizio fasean 60 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Bi ariketa egingo dira:

Lehen ariketa, nahitaezkoa eta baztertzailea.

Test motako galdetegi bat erantzun beharko da idatziz, erantzun anitzekoa, eta erantzunetako bat bakarrik izango da zuzena. Galdetegia deialdi honetako gai orokor eta berariazkoen buruzkoa izango da, II. eranskinean jasota daudenak. Epaimahaiak erabakiko du zenbat galdera egingo diren, erantzun okerrak zigortuko diren ala ez, probak zenbat iraungo duen eta abar.

Ariketa horretan 25 puntu banatuko dira, eta gainditzeko, gutxienez, 13 puntu lortu beharko dira.

Bigarren ariketa: nahitaezkoa eta baztertzailea:

Proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko dira, plazen eginkizunekin lotuta, epaimahaiak zehazten duen denboran. Proba horietan, honako gau hauek landu ahalko dira, besteak beste: igeltserotza; iturgintza; arotzeria; pintura; lorezaintza; makina eta tresnen erabilera; saneamendu, hornidura eta estolderia sareetako matxuren konponketa; hiriko altzarien konponketa; elementu mugikorren muntaketa edo eraikin eta instalazioen garbiketa.

Nolanahi ere, epaimahaiak gehienez hiru proba praktiko ezarri ahal izango ditu, eta hautagaiari aukera eman ahal izango die proba bat edo bi egiteko.

Ariketa horretan 35 puntu banatuko dira, eta gainditzeko, gutxienez, 20 puntu lortu beharko dira.

Proba bakoitza egin baino lehen, webgunean jarraibideen orria argitaratuko da. Bertan, epaimahaiak azterketetan jarraituko dituen irizpideak adieraziko dira, besteak beste (galdera kopurua, oker erantzundakoen zigorra edo zigorrak eza, probaren iraupena...).

Aukerako erantzunak dituzten proben kasuan, gehienez ere 48 ordutan argitaratuko dira kasuan kasuko prozesuak zuzentzeko txantiloiak.

2. Oposizio faseko lehenengo ariketa egiteko eguna, ordua eta lekua ALHAOn argitaratuko dira, onartu diren eta baztertu diren pertsonen behin-behineko zerrendarekin batera.

3. Udal iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko dira gainerako ariketei buruzko iragarkiak.

4. Hautagaiak deialdi bakarrean deituko dira ariketa bakoitzerako. Agertzen ez diren pertsonak baztertu egingo dira, behar bezala justifikatutako eta epaimahaiak askatasunez baloratutako kasuetan izan ezik.

Hamargarrena. Lehiaketa fasea. Alegatutako merezimenduak egiaztatzeko epea eta modua

Lehiaketa fasean 27 puntu lortu ahal izango dira gehienez.

Eskabideak aurkezteko epearen azken egunera arte eskuratutako merezimenduak bakarrik baloratuko dira.

Oposizio fasea gainditzen duten hautagaiak lehiaketa fasera pasako dira. Merezimenduak kalifikatzeko, oposizio faseko 2. ariketako emaitzak argitaratu ondoren hamar (10) egun balduneko epea ezarriko da, ariketa gainditu duten hautagaiek beren eskabidean alegatutako merezimenduak egiazta ditzaten. Aurretiaz jaso ziren eta epe egokian aski egiaztatu diren (jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztuta) merezimenduak baino ez dira baloratuko.

A) Esperientzia:

Merezimendu horri gehienez ere 20,25 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:

– Menpekoen kategoriako antzeko lanpostuetan Administrazio Publikoan emandako zerbitzuak, gehienez 20,25 puntu, lan egindako hilabete bakoitzeko 0,25 puntu.

Ez da inola ere merezimendutzat hartuko eta ez da puntuatuko sektore pribatuan emandako antzeko zerbitzuak ematea, ezta Administrazio Publikoaren zerbitzu kontratuen esleipendun diren enpresak badira ere.

Atal honetan ez dira baloratuko Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 96.1. artikuluan aipatzen diren aldi baterako langileen zerbitzuak, ez eta bekak eta prestakuntzarako praktikak ere.

Egiaztatzeko modua: administrazio publikoan emandako zerbitzuak kasuan kasuko zerbitzuak jaso dituen administrazioaren ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dira. Bertan, berariaz adieraziko dira zerbitzuaren iraupena eta betetako lanpostua, eta deitzen den plazari egokitutako eginkizunen arabera baloratuko dira.

Asparreneko Udalean emandako zerbitzuak ez dira agiri bidez egiaztatu beharko, eta hautagaien espediente pertsonaletan ageri diren datuen arabera baloratuko dira, baldin eta eskabidean jaso badira.

Hautagaiek egiaztatu beharko dute alegatutako esperientzia profesionala deitutako lanpostuaren kategorian bertan edo antzekoan eman dela. Horrez gain, esperientziaren iraupena egiaztatuko beharko dute.

B) Prestakuntza:

Merezimendu horri gehienez ere 6,75 puntu emango zaizkio, honako baremo honen arabera:

6,75 puntu emango dira oinarrizko lanbide heziketako tituluren bat (LH-1, LH-2 edo antzeko tituluak) edukitzeagatik, honako gai hauekin lotuta: Nekazaritza-lorezaintza, eraikinen eta instalazio elektrikoan mantentzea edo igeltsero eta iturgin lanetan.

Inola ere ez dira merezimendutzat hartuko oinarrizko lanbide heziketaren goragoko kategoriako titulazioak.

Hamaikagarrena. Hizkuntza eskakizuna egiaztatua izatea

Eskatzen den hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako edozein bide erabiliko da (297/2010 Dekretua, euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailetara egokitzen dituen).

Aldez aurretik egiaztatu ezin duten eta ariketa baztertzailerak gainditu dituzten izangaiek euskararen ezagutza egiaztatzeko probak egingo dituzte, HAEEn hautaketa prozesuetan hizkuntza eskakizunen azterketak egiteko deialdi bateratueterako ezartzen duen egutegiaren arabera.

Hamabigarrena. Hautaprobetako kalifikazioa

1. Proba baztertzailerak gainditu eta hizkuntza eskakizuna egiaztatuta duten izangaieen azken kalifikazioa oposizio- eta lehiaketa faseetan lortutako puntuak batuz lortuko da, eta horrek behin betiko puntuazio ordena zehaztuko du.

2. Berdinketarik egonez gero, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua eta Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko Eusko Legebiltzarren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.4a) artikulua diotenari jarraiki, trebakuntza berdina badute, emakumeei emango zaie lehentasuna emakumeen ordezkariak % 40 baino txikiagoa den Administrazioaren kidego, eskala eta kategorietan. Inguruabar hori ez da emango baldin eta beste hautagaiaren kasuan, sexuan oinarritutako diskriminaziorik egon ez arren, neurri hori ez aplikatzea justifikatzen duten arrazoiak badaude, hala nola lana lortzeko eta mailaz igotzeko zailtasun bereziak dituzten beste kolektibo batzuetako kide izatea.

Berdinketak jarraitzen badu, lehenik eta behin oposizio fasean puntuazio handiena lortu duena proposatuko da, eta, bigarrenik, oposizio faseko ariketa praktikoan puntuazio handiena lortu duena.

3. Ariketa bakoitzaren puntuazioa udalaren iragarki taulan eta webgunean argitaratuko den iragarkiaren bidez jarriko da jendaurrean, epaimahaiak kalifikazioak erabaki eta hurrengo 48 orduetan.

Hamahirugarrena. Gaindituen zerrenda eta izendapen proposamena

1. Hautaketa prozesuko fase guztien balorazioa amaitu ondoren, lehen hiru hautagaiei eskatuko zaie gehienez ere hamar egun baliouduneko epean plazak betetzeko lehentasun ordena adieraz dezaten; horrela, lehen sailkatua proposatuko da berak lehentasuntzat jotako plazarako. Bigarren sailkatuaren kasuan, berak lehentasunezkoztat adierazitako plazarako proposatuko da, lehen sailkatuak jada adierazi duenean izan ezik; kasu horretan, berak lehentasunezkoztat adierazitako bigarren posturako proposatuko da. Hirugarren sailkatua gainerako posturako proposatuko da.

Hori ikusirik, epaimahaiak akta bidaliko dio Tokiko Gobernu Batzarrari, izendapenen proposamenarekin batera, hautagaiek ezarritako puntuazio hurrenkera eta lehentasun hurrenkera

kontuan hartuta. Akta horretan agertu beharko dira, halaber, puntuazioaren arabera, parte hartu duten, ariketa guztiak gainditu dituzten, eta deitutako lanpostuetatik at geratu diren pertsonak. Izan ere, proposatutako pertsonak dagokien lanpostuaz jabetzen ez badira, zerrenda hori baliatuko da, baina soilik kasu horretan; hau da, zerrendak ez du beste eskubide edo itzaropenik sortzen.

2. Kalifikazio epaimahaiak hutsik deklaratu ahalko du deialdia, baldin eta bere ustez hautagaietako bat ere ez bada egokia.

3. Kalifikazio epaimahaiak emandako ebazpena loteslea izango da izendapenen gaineko eskumena duen organoarentzat. Hala ere, organo horrek ebazpena berraztertu ahal izango du, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen gaineko indarreko legedian ezarritakoaren arabera.

Hamalagarrena. Agiriak aurkeztea

1. Eskatzen diren agiriak: kontrataziorako proposatu diren pertsonak agiri egokiak aurkeztuko dituzte, deialdi honen oinarrien arabera hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko; zehazki, honako hauek:

a) Jaiotza ziurtagiria, dagokion erregistro zibilak emana. Ziurtagiri horren ordez familia liburua erakutsi ahalko da.

b) Medikuaren ziurtagiria, lanpostuaren berezko eginkizunak normaltasunez egitea galarratzen duen gaixotasunik edo mugapen fisiko edo psikikorik ez duela jasotzen duena. Hala ere, apirilaren 7ko 13/1982 Legea, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzkoa, aplikatu ahalko da. Ezintasunen bat duten pertsonak organo eskudunaren ziurtagiri ofiziala aurkeztu beharko dute, izaera hori eta lanpostuaren berezko eginkizunak betetzeko gaitasuna egiaztatzeko.

c) Aitorpena, administrazio publikoren bateko zerbitzutik diziplina espediente bidez baztertua ez dagoela, eta ezintasun eta bateraezintasun kausaren batean ez dagoela adierazten duena. Bateraezintasun horiek zein diren, Administrazio Publikoetako Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean eta Administrazio Publikoko Langileen Bateraezintasunei buruzko apirilaren 30eko 598/1985 Errege Dekretuan dago jasorik.

2. Aurkezteko lekua eta epea: agiri horiek Asparreneko Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira (herriko enparantza, 1, 01250 Araia), hogeitabi (20) egun naturaleko egunean, onartutako pertsonen zerrenda argitaratzen denetik aurrera.

3. Agiriak ez aurkeztea: aipatutako epean, ezinbesteko kasuetan izan ezik, proposatutako pertsonaren batek ez baditu eskatutako agiriak aurkezten, edo agiriak aztertzean 3. oinarrian aipatutako baldintzaren bat betetzen ez duela ondorioztatzen bada, ezin izango da kontratatu, eta bere jarduera guztiak bertan behera geratuko dira; gainera, hautapen prozesuan parte hartzeko eskabidean gezurra esateagatik sor daitekeen erantzukizuna izango du. Kasu horretan, organo eskudunak praktiketako funtzionario izendatuko du 13.1. oinarrian aipatutako aktako ordenaren arabera dagokion pertsona.

Hamabosgarrena. Praktiken fasea

1. Aurreko oinarrian aipatutako dokumentazioa aurkeztutakoan, proposatutako pertsonak praktiketako funtzionario izendatuko dira, gehienez ere 3 hilabeteko aldirako. Izendapenaren berri emango zaie proposatutako pertsonari eta hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten gainerako hautagaiei.

2. Laneko ezintasunaren, amatasunaren, aitatasunaren eta adopzio edo harreraren ziozko lizentziak hartzen badira, praktiketako aldia eten egingo da, eta lanera berriz itzultzean hasiko da berriz ere zenbatzen.

3. Praktikaldia amaitu aurreko 15 eguneko epean, ebaluazio batzorde batek txosten bidez aztertuko du ea hautagaiak bete beharreko lanpostuetara egokitzen diren ala ez. Txostena egitean,

kontuan hartuko dira erakutsi dituzten abilezia eta gaitasunak: lanerako gaitasuna, etekin profesionala, erantzukizuna, eraginkortasuna, ikasteko interesa, prestutasuna eta ekimena. Era berean, lantaldean integratzeko eta barruko nahiz kanpoko harremanetara egokitzeko gaitasuna ere aintzat hartuko da. Ebaluazio batzordeko kide izango dira obretako lantaldearen arduraduna eta epaimahai kalifikatzeko kideetako gutxienez hiru.

4. Txostena aldekoa bada, ebaluatutako pertsonak praktikaldia gaindituko dute eta funtzionario izendatuko dituzte dagokien plazarako, interesdunei jakinaraziko zaie eta ALHAOn argitaratuko da.

Izendatutako pertsonak gehienez ere hilabeteko epean lanpostuaz jabetu beharko dira, beren izendapena ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera. Baldin eta aipatutako epearen barruan hautagaiak lanpostuaren jabetze ekitaldira aurkezten ez badira, horretarako arrazoi justifikaturik egon gabe, lanpostuari uko egin diotela ulertuko da, eta, beraz, eskubide hori zuzenean geratuko da indarrik gabe. Kasu horretan, organo eskudunak praktiketako funtzionario izendatuko du 13.1. oinarrian aipatutako aktako ordenaren arabera dagokion pertsona.

5. Txostena kontrakoa bada, ebaluatutako pertsonak ez du praktikaldia gaindituko, eta izendatua izateko eskubide oro galduko du. Hamar eguneko epea emango zaio bere eskubideari dagozkion alegazio edo oharrak egin ditzan. Organo eskudunak, alegazioak aztertu ondoren, praktikaldia gainditu ote den ebatziko du, eta ukitutako pertsonari emango dio erabakiaren berri. Kasu horretan, organo eskudunak praktiketako funtzionario izendatuko du 13.1. oinarrian aipatutako aktako ordenaren arabera dagokion pertsona.

Hamaseigarrena. Lan poltsa

1. Hautaketa prozesuko ariketa guztiak gainditu dituzten baina plazarik eskuratu ez duten hautagaiak lan poltsa batean sartuko dira, eta, beraz, eskubidea izango dute, hautaketa prozesuan eskuratutako puntuazioaren arabera, lanpostu berdin edo antzekoetan sortzen diren langile premiak estaltzeko.

2. Lan poltsan sartuko dira, halaber, baztertzeko ariketak gainditu ez dituzten edo hautaketa prozesura aurkeztu ez diren arren Asparreneko Udalean antzeko kategoriako zerbitzuak eman dituzten pertsona guztiak. Pertsona horiei esperientziari dagozkion merezimenduak baino ez zaizkie zenbatuko, haiek aurkeztutakoak edo udalean jasota daudenak, hamargarren oinarrian ezarritakoaren arabera, eta balorazio horren emaitza izango da lan poltsan duten hurrenkera zehaztuko duena. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ez dutenei dei egin ahal izango zaie derrigorezko hizkuntza eskakizunik ez duten aldi baterako lanpostuak betetzeko.

3. Lan poltsa aurreko irizpideen arabera eratzeak berekin ekarriko du menpekoen kategorian indarrean dauden lan poltsak ezabatzea, eta indarrean egongo da lan poltsen beste deialdi bat egin arte.

Hamazazpigarrena. Gorabeherak

1. Interesdunek deialdiaren, oinarrien, haien ondoriozko administrazio egintza guztien eta epaimahaien jardunaren aurka egin dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezartzen dituzten kasuetan eta finkatzen duten moduan.

2. Epaimahaiak ahalmena du sortutako zalantzak argitu eta lehiaketa-oposizioaren garapen egokiaren helburuetan erabakitzeko, oinarri hauetan ezarritakoaren arabera.

I. eranskina

Deialdiaren xede diren lanpostuen zerrenda

Lanpostua: 1 dotazioa (Zerbitzuetako peoia)

Menpekoen kategoria.

Taldea: lanbide taldea.

Titulazioa: eskola ziurtagiria.

Dedikazioa: lanaldi osoa.

Betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

Destino osagarria: 14.

Berariazko osagarria: Udalhitzeko 8. mailera arte.

Hizkuntza eskakizuna: 2, igarotako derrigortasun datarekin.

Eginkizunak:

– Igeltserotza, iturgintza, soldadura, arotzeria, elektrizitate, pintura eta kofratze obretako peoi lanak.

– Kanposantuen esparruaren kontserbazioa eta atondura zaintzea, eta antzemandako hutsuneak zuzentzen saiatzea.

– Askotariko egitura eta eszenatoki mugikorrek muntatu eta desmuntatzeko lanak garatzea, bai eta altueran gauzatu beharreko zenbait lan egitea ere. Hesiak, seinaleak... jartzea.

– Udal azpiegituretan konponketa lanak egitea, besteak beste ur sareetan (edateko uraren sarean, ureztatzeko uraren sarean...). Herriko argiak, ekipamendua eta eraikinak konpontzea.

– Kaleak, bideak, arekak eta abar garbitzeko eta mantentzeko lanak.

– Lorezaintzako lanak.

– Fatxadak garbitzea, pintadak kenduz eta kartelak kenduz. Halaber, bide publikoa egokitze beste lan batzuk ere egitea, besteak beste: sasiak kendu, pankartak erretiratu eta baldintza txarretan dauden elementuak ordezkatu edo konpontzea, bai bide publikoan, bai udalaren egoitzetan.

– Ohiko lanalditik kanpo matxurei arreta ematea, hala eskatuz gero. Era berean, ohiko lanalditik kanpo lan egiteko eskatu ahal izango da, jai egunetan edo beste egoera berezi batzuetan.

– Materialak jaso, kargatu eta deskargatzea, eta materialok biltzeko lanak egitea.

– Beren lan kategoriaren barruan sartzen diren beste lan batzuk egitea, kultura, kirol edo jaiekin lotutako jardueretan.

– Obretako ibilgailuak eta makinak erabiltzea (iraulki motorra, , , soldagailua eta antzekoak), agindutako lanak egiteko bide publikoan, edo kargak garraiatu edo manipulatzeko.

– Udal ibilgailuak gidatzea.

– Ibilgailuak eta makinak garbitu eta mantentzeko oinarrizko lanak egitea, bai eta koipea eman, garbitu, mailak egiaztatu, olio aldatu eta antzeko zereginak gauzatzea ere.

– Maneiatzen dudan lan materialaz arduratzea.

– Aparteko egoeretan (elurteak, izozteak, denboraleak, uholdeak, suteak...) beharrezko lanak egitea.

– Udalaren jakinarazpen eta komunikazioak banatzea, iragarki taulak mantentzea, eta udalak agintzen dituen kartel eta agiriak jartzea.

– Ezarritako lan programaren eta maila altuagoko arduradunak baloratutako zerbitzu beharrianen ondorioz kasu jakin batzuetan ordutegien malgutasunari jarraikiz planteatzen diren eskakizunetara egokitzea.

– Deskribatutakoez gain ezartzen diren beste eginkizun batzuk betetzea, lanpostua esku-ratu eta betetzeko eskatutako kualifikazioarekin bat badatoz, beren eskumen arloaren barruan sortzen badira, eta maila altuagoko karguek eskatzen badizkiete.

Lanpostua: 2 dotazioa (Kiroldegiko kantzazaina I)

Izena: "2. dotazioa. Kiroldegiko atezaina", 2019ko azaroaren 27ko ALHAOn (137. zk.) argitaratutako mendeko kategoriako lanpostuen zerrendan.

Menpekoen kategoria.

Taldea: lanbide taldea.

Titulazioa: eskola ziurtagiria.

Dedikazioa: lanaldi osoa.

Betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

Destino osagarria: 14.

Berariazko osagarria: Udalhitzeko 7. mailera arte.

Hizkuntza eskakizuna: 2, igarotako derrigortasun datarekin.

Eginkizunak:

– Kiroldegiko instalazio eta espazio guztiak garbitzea eta desinfektatzea.

– Elurra kentzea kanpoko ingurunetik.

– Kiroldegiaren kanpoko berdeguneak eta lorategiak mantentzea.

– Kirol ekipamendua berrikustea eta kontrolatzea.

– Eraikinean sortutako kalte txikiak konpontzea, elektrizitatea, iturgintza, arotzeria, sarrailak eta abar barne, konplexutasun teknikoak profesionalen laguntza eskatzen ez duen neurrian.

– Instalazioen mantentze lanak eta kontrola: berogailua programatzea, piztea eta itzaltzea, botikina mantentzea, alarma kontrolatzea eta abar.

– Kiroldegia eta inguruko instalazioak irekitzea eta ixtea, jasotzen dituen jarraibideen arabera. Argiak, txorrotak, leihoak, sarrailak eta abar berrikusi beharko dira itxi aurretik.

– Harrerako atezaintza funtzioak, jendeari arreta eta informazioa emateko.

– Megafonia zerbitzua.

– Instalazioko erabiltzaileen sarrerak kontrolatzea eta kobratzea, eta abonamenduak egitea.

– Udalak antolatzen dituen kirol ikastaroetan izen emateak egin eta kobratzea.

– Udalaren kirol instalazioen erregelamenduan edo instalazioa erabiltzeko arauetan ezarritako erabilera baldintzak betetzen direla zaintzea.

– Jendeari arreta eta informazioa ematea.

– Deskribatutakoez gain ezartzen diren beste eginkizun batzuk betetzea, lanpostua esku-ratu eta betetzeko eskatutako kualifikazioarekin bat badatoz, beren eskumen arloaren barruan sortzen badira, eta maila altuagoko karguek eskatzen badizkiete.

Lanpostua: 3 dotazioa (Kiroldegiko kantzazaina II)

Izena: "3. dotazioa. Kiroldegiko atezaina"; 2019ko azaroaren 27ko ALHAOn (137. zk.) argitaratutako mendeko kategoriako lanpostuen zerrendan.

Menpekoen kategoria.

Taldea: lanbide taldea.

Titulazioa: eskola ziurtagiria.

Dedikazioa: lanaldi osoa.

Betetzeko era: oposizio-lehiaketa.

Destino osagarria: 14.

Berariazko osagarria: Udalhitzeko 7. mailera arte.

Hizkuntza eskakizuna: 2, igarotako derrigortasun datarekin.

Eginkizunak:

- Kiroldegiko instalazio eta espazio guztiak garbitzea eta desinfektatzea.
- Elurra kentzea kanpoko ingurunetik.
- Kiroldegiaren kanpoko berdeguneak eta lorategiak mantentzea.
- Kirol ekipamendua berrikustea eta kontrolatzea.
- Eraikinean sortutako kalte txikiak konpontzea, elektrizitatea, iturgintza, arotzeria, sarrailak eta abar barne, konplexutasun teknikoak profesionalen laguntza eskatzen ez duen neurrian.
- Instalazioen mantentze lanak eta kontrola: berogailua programatzea, piztea eta itzaltzea, botikina mantentzea, alarma kontrolatzea eta abar.
- Kiroldegia eta inguruko instalazioak irekitzea eta ixtea, jasotzen dituen jarraibideen arabera. Argiak, txorrotak, leihoak, sarrailak eta abar berrikusi beharko dira itxi aurretik.
- Harrerako atezaintza funtzioak, jendeari arreta eta informazioa emateko.
- Megafonia zerbitzua.
- Instalazioko erabiltzaileen sarrerak kontrolatzea eta kobratzea, eta abonamenduak egitea.
- Udalak antolatzen dituen kirol ikastaroetan izen emateak egin eta kobratzea.
- Udalaren kirol instalazioen erregelamenduan edo instalazioa erabiltzeko arauetan ezarritako erabilera baldintzak betetzen direla zaintzea.
- Jendeari arreta eta informazioa ematea.
- Deskribatutakoez gain ezartzen diren beste eginkizun batzuk betetzea, lanpostua esku-ratu eta betetzeko eskatutako kualifikazioarekin bat badatoz, beren eskumen arloaren barruan sortzen badira, eta maila altuagoko karguek eskatzen badizkiete.

II. eranskina

Gai orokorrak

1. gaia: Espainiako 1978ko Konstituzioa: printzipio orokorrak: oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak.

2. gaia: 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena: atariko titulua.

3. gaia: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen: udal antolamenduko oinarrizko organoak (alkatetza, gobernu batzarra eta udalbatza) eta VIII. titulua (toki ogasunak).

4. gaia: Asparreneko udalerria. Ezaugarri geografikoak. Udal barrutiaren mugak. Herriguneak. Hiri bideak eta zeharbideak. Landa bideak.

5. gaia: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena. ebazpenen eta administrazio egintzen jakinarazpena.

Gai espezifikoak

1. gaia: obra publikoetan, estoldetan eta saneamenduan erabili ohi diren materialak. Oinarrizko eraikuntza prozedurak.

2. gaia: bide publikoan elementu mugikorren muntaketa. Aldamioak, tribunak, karteldegiak, hesiak eta abar.

3. gaia. Hiri altzariak. Motak eta konponketa ohikoenak.

4. gaia. Laneko arriskuen prebentzioa: segurtasun eta higiene neurriak lanean. Produktu toxiko edo arriskutsuak. Babes pertsonala eta kolektiboa.

5. gaia: Saneamenduaren gaineko kontzeptu orokorrak. Edateko ura, saneamendukoa eta estolderietakoa hornitzeko sareak; urak ebaluatzeko instalazioak mantendu eta matxurak konpontzeko lanak.

6. gaia: igeltserotzaren gaineko kontzeptu orokorrak. Materialak, tresnak eta horien erabilera. Igeltserotza lanak.

7. gaia. Iturgintzaren gaineko kontzeptu orokorrak. Materialak, tresnak eta horien erabilera. Matxurak eta konponketak.

8. gaia. Zerbitzuen gaineko oinarrizko matxurak eta konponketak. Makina eta tresnen erabilera. Larrialdien konponketak.

9. gaia. Arotzeria, pintura eta lorezaintzaren gaineko kontzeptu orokorrak. Materialak, tresnak eta horien erabilera. Arotzeriaren gaineko oinarrizko teknikak. Mantentze eta konponketa ohikoenak. Produktu fitosanitarioak: arriskuak prebenitzea horiek erabiltzean.

10. gaia. Eraikinetako segurtasunari buruzko oinarrizko nozioak. Ebakuazioa. Suteen aurka babesteko instalazioak.

11. gaia. Eraikinen eta instalazioen mantentze lanak. Instalazio elektrikoak, ur instalazioen, berokuntza gasaren eta aire girotuaren mantentze lanei buruzko oinarrizko nozioak.

12. gaia. Zoruak eta zoladurak, bulegoko altzariak eta tresneria, kristalak, metalak, igogailuak eta ekipamenduak garbitzeko prozedurak. Garbiketa lanetarako erabilera arrunteko tresnak, erremintak eta makineriak.

13. gaia. Kirol ekipamenduen oinarrizko ezagutzak: futbola, eskubaloia, saskibaloia, pilota, gimnasia, aerobic, yoga, wushu eta arte martzialak, spinning, etab.

14. gaia. Posta elektronikoaren eta testuen tratamenduaren erabiltzaile mailako oinarrizko nozioak.

III. eranskina

Eskaera orria, menpekoen kategoriari dagozkion hiru funtzionario plazetarako probetan onartua izateko.

Izena eta abizenak: _____

NAN: _____ Telefonoa: _____ Jaiotze data: _____

Posta elektronikoa: _____

Helbidea: _____ kalea, ____ zk., _____ (herria) ____ (PK)

Adierazten dut:

Menpekoen kategoriako funtzionarioen hiru plaza betetzeko deialdia arautuko duten oinarrien berri izanda, hautaprobetan onartua izan nahi dudala.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditudala eskabideak aurkezteko oinarri arauetan adierazitako epea amaitzen den egunean.

Ez nautela, diziplinazko espediente bidez, administrazio zerbitzutik baztertu, eta ez dudala ezintasunik edo ezgaitasunik, ez eta gaixotasun eta akats fisikorik, eginkizunak behar bezala egitea galarazten didanik.

Era berean, adierazten dut baimena ematen dudala nire datuak deialdiaren oinarrien arabera erabiltzeko.

Honako merezimendu hauek aitortzen ditudala, lehiaketa fasean kontuan har daitezen:

ERAKUNDEA	LANPOSTUAREN IZENA	KATEGORIA	DATAK EDO IRAUPENA	LANALDI MOTA (EHUNEKOAK)

(jarri X behar denari)

__ Eskatutako euskara maila egiaztatzen duen titulazioa dudala.

__ HAEEen probetan parte hartu nahi dudala eskatutako euskara maila egiaztatzeko.

Oinarrietan eskatutako egiaztagiria hauek eransten ditut:

- NANaren eta gidabaimenaren fotokopia konpultsatuak.
- Eskatutako tituluaren fotokopia konpultsatua.
- Hizkuntza eskakizunaren egiaztagiria (behar izanez gero).

Eskatzen dut:

Hautaprobak egiteko onar nazatela.

_____, _____(e) ko _____aren ____ (a).

Sinadura